Astigarragako Udala
Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

# OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2013IPLE0005
**Eguna:** 2013-05-29
**Ordua:** 19:00 – 19:30
**Tokia:** Areto nagusia

## Bertaratuak

| | |
|---|---|
| - Andoni Gartzia Arruabarrena | EHBILDU |
| - Maite Olatziregi Esparza | EHBILDU |
| - Agin Rezola Laburu | EHBILDU |
| - Ione Olatziregi Mendiorotz | EHBILDU |
| - Berta Arozena Bergara | EHBILDU |
| - Isabel Otero Glorie | EHBILDU |
| - Raul Redín Hernández | EHBILDU |
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ-PNV |

## Bertaratu ez direnak

| | |
|---|---|
| - Ramón Aranzasti Loyarte | EAJ-PNV |
| - Bixente Arrizabalaga Bengoetxea | Hamaikabat |
| - Imanol Lizarralde Marín | Hamaikabat |

## Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

## Aztergaiak

| GAI ZERRENDA | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **2013ko apirilaren 25eko aktaren onarpena** | **1** | Aprobación del acta de 25 de abril de 2013 |
| **Kale-izendegiaren aldaketa onartzea** | **2** | Aprobación modificación de callejero |
| **Sustapen ekonomikoaren eta enpleguaren alorreko eskualde osorako lankidetza-protokoloaren luzapena onartzea** | **3** | Aprobación de la prórroga del protocolo general de colaboración comarcal en materia de promoción económica y empleo |
| **Mozioa: onkologikoa** | **4** | Moción: oncológico |

| | | |
|---|---|---|
| **Mozioa: egoitza eta eguneko zentroetako langileen lan-hitzarmena** | 5 | Moción: convenio de los trabajadores de residencia y centro de día |
| **Informazio, galdera eta eskariak** | 6 | Información, ruegos y preguntas |

## Esan-eginak eta erabakiak

1. **<u>2013ko apirilaren 25eko aktaren onarpena</u>**

Zorione Etxezarragak 8. puntuari dagokion zehaztapena egin ondoren, akta aho batez onartu da. 8. puntuan honako hau jaso behar da: Zorione mozioaren alde egonda ere, abstenitu egingo dela osoko bilkura grabatzen ari direlako (9. orrialdea).

1. **<u>Aprobación del acta de 25 de abril de 2.013</u>**

Con la matización de Zorione Etxezarraga al punto 8, en el que se debe recoger que a pesar de estar a favor de la moción de la ikastola, se va abstener porque se está grabando el pleno (página 9), el acta es aprobada por unanimidad.

2. **<u>Kale-izendegiaren aldaketa onartzea</u>**

Obra eta zerbitzu batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabaki hau har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

Egun kale-izendegian den Geltoki kaleari Urumea kalea izena ematea, eta altxatuko den eraikinari 6., 8. eta 10. zenbakiak ezartzea.

Proposamena bozkatu ondoren, aho batez onartu da.

2. **<u>Aprobación modificación de callejero</u>**

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de obras y servicios, proponiendo la adopción del siguiente acuerdo:

Nombrar como Urumea kalea a la actual Geltoki kalea del callejero municipal, y dotar de los números 6, 8 y 10 al edificio que se está construyendo.

Sometida a votación la propuesta es aprobada por unanimidad.

3. **<u>Sustapen ekonomikoaren eta enpleguaren alorreko eskualde osorako lankidetza-protokoloaren luzapena onartzea</u>**

Sustapen ekonomikoaren eta enpleguaren alorreko eskualde osorako lankidetza-protokolo orokorra luzatzeko proposamena aurkeztu da, honako proposamen hauekin:

3. **<u>Aprobación de la prórroga del protocolo general de colaboración comarcal en materia de promoción económica y empleo</u>**

Se presenta la propuesta para la prórroga del protocolo de colaboración comarcal en materia de promoción económica y empleo, en que se propone:

1.- Onartzea Sustapen Ekonomikoaren eta Enpleguaren alorreko eskualde osorako lankidetza-protokoloaren jarraipena, urtebetez, 2014ko maiatzaren 29ra bitarte, Donostialdea bailara osatzen duten Udaletxeekin, hau da, Lasarte-Oria, Usurbil, Urnieta, Hernani eta Astigarraga, gaur egunean protokoloa jasotzen den moduan. Protokoloa bertan behera behera gera daiteke, beti ere, sinatzen dutenen arteko norbaitek salatuko balu.

1.-Aprobar la prórroga del Protocolo general de colaboración comarcal en materia de Promoción Económica y Empleo con los Ayuntamientos que conforman la comarca de Donostialdea oeste, es decir, Lasarte-Oria, Usurbil, Urnieta, Hernani y Astigarraga, en los mismos términos que recoge el presente, por un año más, hasta el 29 de mayo de 2014, sin perjuicio de que el mismo pueda quedar en suspenso, previa denuncia de alguno de los firmantes.

2.- Onartzea, hurrengo prorroga edota jarraipenen aurrean, Udal Gobernu Batzarra izatea dagokion akordioa hartuko duena, Osoko batzarrak erabaki hori organo horretan delegatuz.

2.- Aprobar, ante posibles prórrogas posteriores , que sea la Junta de Gobierno Local la que adopte el acuerdo pertinente, delegando el pleno ese poder ante dicho órgano.

3.- Akordio honen berri Lasarte-Oria, Usurbil, Urnieta, Hernani eta Astigarragako Udalei ematea, jasota gera dadin.

3.- Dar traslado del presente acuerdo a los Ayuntamiento de Lasarte-Oria, Usurbil, Urnieta, Hernani y Astigarraga, para su constancia.

4.-Akordio honen berri Udaletxeko lansail guztiei ematea, jasota gera dadin.

4.-Dar traslado del presente acuerdo a todos los departamentos municipales, para su constancia.

Proposamena bozkatu ondoren, aho batez onartu da.

Sometida a votación la propuesta es aprobada por unanimidad.

## 4. <u>Mozioa: onkologikoa</u>

## 4. <u>Moción: oncológico</u>

Alkateak mozioa irakurri du, eta mozio horretan honako erabaki hauek hartzeko proposatu da:

El Alcalde da lectura a la moción en la que se propone la adopción de los siguientes acuerdos:

1.- Astigarragako Udalak Onkologikoaren eta bertako langileen aitortza egin nahi du, alor honetan urte luzetan egin duten lanagatik. Lan honek Onkologikoa mantendu, zaindu eta babestu beharreko erreferentean bilakatu du, beti ere jendarte guztiari zuzendutako zerbitzu bezala.

1.- El Ayuntamiento de Astigarraga quiere reiterar el reconocimiento a Onkologikoa, así como al conjunto de la plantilla, por su trabajo durante tantos años en este campo, ya que dicho trabajo ha convertido a Onkologikoa en un referente que debemos de mantener, cuidar y preservar para que siga prestando su servicio al conjunto de la ciudadanía

desde el sistema público de asistencia sanitaria.

2.- Astigarragako Udalak Onkologikoa, Osakidetzan, Osasun Publikoaren Sisteman, sartzeko nahia adierazten du eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio has dadila Kutxako Zuzendaritzarekin eta Gizarte Ekintzarekin eskakizun hau errealitate bilakatzeko beharrezkoa den plangintza adosten. Plangintza horretan eman beharreko urratsak, epeak eta bi erakundeen kulturak uztartzeko ibilbidea jaso beharko dira.

2.- El Ayuntamiento de Astigarraga expresa su deseo de que Onkologikoa sea integrado en el Sistema Público de Salud, Osakidetza, e insta al Gobierno Vasco a llegar a un acuerdo con la Dirección de Kutxa y su Obra Social para iniciar un proceso de conversaciones donde se acuerden los pasos a dar para hacerlo efectivo. Ambas partes deberán planificar los plazos y los pasos a dar para hacer esto realidad integrando la cultura de ambas organizaciones.

3.- Astigarragako Udalak Eusko Jaurlaritzari eta Kutxako eta Kutxabank-eko zuzendariei eskatzen die, adostutako zuzendaritza baten baitan garatuko den trantsiziozko epealdi honetan berma dezatela Onkologikoak biziraupenerako behar duenn diru-hornidura. Hornidura honek, gutxienean, orain arteko kopuru berekoa izan behar du.

3.- El Ayuntamiento de Astigarraga insta al Gobierno Vasco y a la Dirección de Kutxa y Kutxabank a que acuerden durante este período transitorio, cuya duración será convenida, la aportación de la cuantía necesaria para el mantenimiento de Onkologikoa, que será de al menos la misma cuantía que la que venía dotando para su sostenimiento.

4.- Astigarragako Udaleko Osoko Bilkura honek hartutako erabakiak jakinarazi behar die:

- Kutxako Batzarrari eta haren Gizarte Ekintza Batzordeari
- Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuari
- Osakidetzako zuzendariari
- Astigarragako herritarrei

4.- El Ayuntamiento de Astigarraga dará a conocer este acuerdo a las siguientes instancias:

- A la Asamblea de Kutxa y a su Comisión de Obra Social
- Al Consejero/a de Saniedad del Gobierno Vasco
- Al Director/a de Osakidetza
- A los y las vecinas de Astigarraga

Zorionek hartu du hitza adierazteko mozioaren aurkako botoa emango dutela; izan ere, nahiz eta Onkologikoa erakunde pribatua den (Kutxak sortutako fundazioa patronatu propioarekin), eta sekulako lana egiten duen, ulertzen dute erakunde horrek berak erabaki behar duela kudeatzeko modua bere prestazioak sektore publikora nahiz sektore pribatura bideratuta baitaude. Ez da zuzena Onkologikoa sare publikoan integratzeko

Interviene Zorione indicando que ellos van a votar en contra dado que el Oncológico es una entidad privada, una fundación creada por Kutxa, con un patronato propio y que desarrolla una gran labor pero entiende que es la entidad la que tiene que decidir el modo de gestión, y sus prestaciones están dirigidas tanto al sector público como al privado. No es correcto pedir la integración en la red pública, porque

eskatzea, fundazioari dagokiolako haren garapena eta kudeaketa.

Alkateak erantzun du Onkologikoa Kutxaren erakunde bat izanda ere, langileak kaleratzeko planak daudela eta bestalde, gogorarazi du batetik, erakunde pribatua dela baina gipuzkoar guztiona, gipuzkoar guztion aurrezkiekin (Kutxak bideratuak) sortutako erakundea delako eta bestetik, zerbitzurik ezak galera ekonomiko esanguratsuak eragiten dituela.

Mozioa bozkatu ondoren, onartu egin da, EH-Bilduren aldeko botoekin eta EAJ-PNVren kontrako botoarekin.

corresponde a la fundación su desarrollo y gestión.

El Alcalde contesta que es una entidad de Kutxa pero que se están preparando planes para despedir a trabajadores, y recuerda que es una entidad privada pero de todos los gipuzkoanos, dado que se ha creado con el ahorro de los gipuzkoanos vía Kutxa, y que la falta de servicios están provocando pérdidas económicas significativas.

Sometida a votación es aprobada con los votos a favor de EHBildu y voto en contra de EAJ-PNV.

**5. <u>Mozioa: egoitza eta eguneko zentroetako langileen lan hitzarmena</u>**

Alkateak mozioa irakurri du, eta mozio horretan honako erabaki hauek hartzeko proposatu da:

- Adegi eta Laresi dei egiten diegu inposizioaren bidea albo batera utzi, negoziazioa desblokeatu eta sindikatuekin herrialdeko lan-hitzarmenaren gaineko akordio batera iristeko eskatzen diegu.
- Adegiri Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontra aurkeztutako demanda kentzera dei egiten diogu.
- Jendeari kalitateko zerbitzu publiko baten alde, eta sektore honetako herrialdeko hitzarmenaren alde dagoeneko atnolatuak dauden eta datozen egun eta asteetan antolatuko diren mobilizazioetan parte hartzera dei egiten diogu.

Alkateak adierazi du Foru Aldundiaren planteamendua zuzena izan dela arazoa konpontzeko alternatiba bat proposatzen

**5. <u>Moción: convenio de los trabajadores de residencias y centros de día</u>**

El Alcalde da lectura a la moción en la que se propone la adopción de los siguientes acuerdos:

- Hacemos un llamamiento a Adegi y a Laresi para que dejen a un lado la vía de la imposición, desbloqueen la negociación y lleguen a un acuerdo sobre el convenio laboral territorial.
- A Adegi le pedimos que retire la demanda que presentó contra la Diputación Foral de Guipuzkoa.
- Por último, también pedimos a la gente que participe en las movilizaciones —tanto en las ya organizadas como en las que se organizarán los próximos días y semanas— a favor de un servicio público de calidad y de un convenio territorial para este sector.

El Alcalde señala que el planteamiento de la Diputación ha sido correcto al plantear una alternativa para solucionar el

duelako.

Zorione Etxezarragak adierazi du Foru Aldundiak planteatutako konponbidean ez dela jasotzen beharrezkoa den finantziazioa eta, beraz, erantzukizuna Foru Aldundiaren gain dagoela.

Alkateak esan du zerbitzu hori kudeatzen duten enpresa pribatuek beren gain hartu beharko dutela dagokien finantziazioaren zatia ere, ez soilik mozkinak.

Berta Arozenak adierazi du ez direla soldatak gatazkaren oinarria, KPIa eguneratzea besterik ez baita eskatu eta aldiz, lan-baldintzen gainerako hobekuntzak direla garrantzitsuenak; izan ere, akordiorik ez bada lortzen patronalak Estatuko hitzarmena aplikatzea planteatuko du uztailean, horrek langileei ekarriko dien kaltearekin; beraz, Zorione mozio honen aurka baldin badago, langileen aurka dago.

Zorione Etxezarragak berretsi du Foru Aldundiari dagokiola ekarpena bermatzea.

Proposamena bozkatu ondoren, onartu egin da, EH-Bilduren aldeko 7 botorekin eta EAJ-PNVren kontrako boto batekin.

problema.

Zorione Etxezarraga manifiesta que la solución planteada por Diputación no va acompañada de la financiación necesaria y por tanto la pelota está en el tejado de la Diputación.

El Alcalde señala que la empresas privadas que gestionan este servicio deberán asumir la parte que les corresponde, no solo los beneficios.

Berta Arozena señala que el conflicto no se centra en los salarios dado que sólo han exigido la actualización del IPC, y que lo importante son el resto de mejoras de condiciones de trabajo, que si no se llega a un acuerdo, la patronal en julio planteará la aplicación del convenio estatal con el perjuicio que eso va a suponer para los trabajadores, de modo que si Zorione está en contra de esta moción, está en contra de los trabajadores.

Zorione Etxezarraga insiste que a la Diputación le corresponde garantizar la aportación.

Sometida a votación la propuesta es aprobada con 7 votos EHBildu y 1 voto en contra de EAJ-PNV.

## 6. Informazio, galdera eta eskariak

6.1. Zorione Etxezarraga zinegotziak kultura-arloko zenbait diru-laguntzaren kudeaketaren inguruan galdetu du eta Agin Rezola zinegotziak erantzun dio horri buruzko informazioa eman zela dagokion batzordean eta gaiari jarraipena emango zaiola.

6.2. Zorione Etxezarraga zinegotziak eskatu du atez atekoari buruz web-orrian

## 6. Información, ruegos y preguntas

6.1. La concejal Zorione Etxezarraga pregunta en relación a la gestión de determinadas subvenciones de cultura, a lo que el concejal Agin Rezola contesta que se dio información en la comisión, y se seguirá con ello.

6.2. La concejal Zorione Etxezarraga solicita que se analice en la comisión de

argitaratutako informazioa hirigintza-batzordean aztertzeko.

urbanismo la información de los resultados del PaP publicados en la Web.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2013ko maiatzaren 29an

**Xabin Olaizola Lasa**
**Idazkaria**